

Egiaren atzetik



Ocioko gaztelua, Araban. ASIER AGIRRESAROE

XAN HARRIAGUE

Nafarroa. Erreinuaren defen-
datu zuten gazteluak li-
buruen hirugarren ale-
an, Iñaki Sagredo histo-
rialariak (Irun, 1967) Nafarroako
Erreinu berriz zati bat aztertu
du, itsasaldea, gaur egungo Biz-
kaia, Araba eta Gipuzkoa alegia.
Dioenez, ale hori zerutik hartuta-
ko Erdi Aroko arrasto polit batzuk
baino gehiago da. Euskal Herria-
ren zatiketa ulertzeko oinarritzkoa
da, eta etorkizunari begira kon-
tuan hartu beharrekoa.

Aitzineko bi aleetan, Nafarroa
eta Goi Aragoiko, Sobrarbeko eta
Ribargotzako gazteluak aztertu
ziten, eta, oraingoan, Nafarroako
Erreinu mendebaldeko aztertu
du. Guztira Erdi Aroko 40 gaztelu
zenbatu ditu, gehienak Araban
daude. Gaztelako Erreinuak
mehatxatzen zuten aldean hain
zuzen. Liburua zerutik hartutako
argazkiz osatuta dago, baina,
horretaz gain, egileak azalpen
franko gehitu ditu irakurleak
hobeki uler dezan; hala, garaiko
gazteluak irudikatzen dituzten

Nafarroako Itsasaldea
defendatzeko eta
kontrolatzeko gazteluak
aztertu ditu
Iñaki Sagredok.

marrazkiak, mapak eta artxiboak
daude.

Sagredok bi eratan sailkatzen
ditu aztertu dituen gazteluak, alde
batetik, defentsarako zirenak, eta
bertzetik, eremu baten kontrola-
tzeko zirenak. Inbasio arriskua
Ebro bestaldean zegoela eta, gazte-
lu gehienak Araba hegoaldeko pa-
sabideetan zeuden, eta etsaiek bi
defentsa lerro gainditu behar zi-
tuzten Gasteizko hiria erasotu
ahal izateko.


Gainerako gazteluak eskualde-
ak kontrolatzeko ziren, eta arris-

kua anitzez txikiago izaki propor-
tionalki bakanagoak.

Defentsarako izan edo kontrole-
rako izan, denek ezaugarri berdin-
tsuak zituzten. Iristeko zailak zi-
ren tokietan eraikitzen zituzten,
harkaitz edo tontor baten gainean.
Altueran izateak bi abantaila zi-
tuen, batetik etsaiari erasotzeko
trabak ematen zizkion, baina, den-
bora berean, ibar eta eskualde oso-
ak kontrolatzeko gaitasuna ere
bai. Arkitekturari dagokionez, do-
rreak eta harresiak harrizkoak iza-
ten ziren, baina zura ere erabiltzen



Marraskian, Ausako gazteluak izan zuen itxura ikus daiteke.



Ocioko gazteluaren irudia.